

"Juntos" antzezlanak emango dio hasiera Antzerki Garaiari Beasainen

Azken eguneratzea: Ostirala, 11 Urtarrila 2019 16:06

Argitaratua: Ostirala, 11 Urtarrila 2019 15:34



Urtarrilarekin batera Ordiziako Herri Antzokiak eta Besaingo Usurbe antzokiak zabaltzen dituzte bere eskenatokiak "Antzerki Garaia" programazioari. "Antzerki garaia" egitaraua Beasain eta Ordiziako Udaletako Kultura Sailek bultzatu eta antolatu dute, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Euskadiko Antzerti sarearen lankidetzekin. Aurtengoa Antzerki Garaiaren 25. ekitaldia izango da.

Edizio honetan, euskararen sustapen eta bultzadan aurrera eginez, euskal antzerkigintzaren oparotasuna dela medio programazioan eskainiko diren 8 lanetatik 6 euskaraz izango dira. Antzerki taldeak eta obrak aukeratzeko garaian kontutan hartutako irizpideak kalitatea, muntaia, hizkuntza, konpainiaren eskarmentua eta obren arrakasta izan dira.

Antzerki garaiaren egitaraua Ordizian ireki behar zuen antzezlanak "The Primitives" lana otsailaren 8ra atzeratu da eta egitarauan bigarrenak "Juntos" izeneko antzezlanak emango dio Beasainen hasiera Antzerki

"Juntos" antzezlanak emango dio hasiera Antzerki Garaiari Beasainen

Azken eguneratzea: Ostirala, 11 Urtarrila 2019 16:06

Argitaratua: Ostirala, 11 Urtarrila 2019 15:34

garaiari urtarrilaren 18an bi saioekin; 20:00etan eta 22:15ean.
Gainotzeko emanaldi guztiak 22:15ean eskainiko dira.

Sarrerak eta abonak

Emanaldi bakoitzerako sarrerak 10 euroan izango dira. Ziklo osorako abonua ere lortu daiteke, 60 euroan. Sarrerak, emanaldia egin behar den antzokiaren leihatilan lortu ahal izango dira, Ordiziako saioetarako Barrena Kultur Etxean ere. Eta Beasainen kutxabank zerbitzuaren bidez ere bai. Badago baita talde-sarrerak eskuratzeko aukera eta horrela 10 sarrera baino gehiago eskuratu nahi dituzten kultura talde, ikastetxe eta gisakoek, sarrera-prezio berezia izango dute: 8 € sarrerako. Taldeko sarrerak lortzeko, dagokion Udaleko Kultura Sailean aldez aurretik jakinarazi beharko da.

Informazio gehiago:

["Juntos" antzezlanak](#)

[pdf Antzerki garaia egitarau \(666 KB\)](#) [pdf osoa \(666 KB\)](#)

Urtarrila **11** **THE PRIMITALS**
(Yllana eta Primal Brothers) Herri Antzokia, **ORDIZIA** (22:15)

18 **JUNTOS**
(Txalo produkzioak) Usurbe Antzokia, **BEASAIN** (20:00/22:15)

Otsaila **15** **RITA, ARRASTOAN SARTZEN**
(Txalo produkzioak) Herri Antzokia, **ORDIZIA** (22:15)

22 **ERLAUNTZA**
(Vaivén producciones) Usurbe Antzokia, **BEASAIN** (22:15)

Martxoa **01** **GHERO, AZKEN EUSKALDUNA**
(Tartean Teatro) Herri Antzokia, **ORDIZIA** (22:15)

15 **ZOAZ PAKE SANTUAN**
(EIN Produkzioak) Usurbe Antzokia, **BEASAIN** (22:15)

Apirila **05** **DUBLINDARRAK**
(Ados Teatro) Herri Antzokia, **ORDIZIA** (22:15)

12 **ROMAN ETA JULIETA**
(Borobil Teatro) Usurbe Antzokia, **BEASAIN** (22:15)

ANTZERKI GARAI 2019
ORDIZIA BEASAIN





trub@beasain.garaiak

"Juntos" antzezlanak emango dio hasiera Antzerki Garaiari Beasainen

Azken eguneratzea: Ostirala, 11 Urtarrila 2019 16:06

Argitaratua: Ostirala, 11 Urtarrila 2019 15:34
